



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

EZ OHIKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

Bilera-zenbakia: 2019IPLE0006

Eguna: 2019-06-15

Ordua: 9:00 – 9:25

Tokia: Areto nagusia

Bertaratuak

- Xabier Urdangarin Iasa	EH Bildu
- Aintzane Barandiaran Ezponda	EH Bildu
- Andoni Gartzia Arruabarrena.....	EH Bildu
- Rosalia Fernandez Rodriguez	EH Bildu
- Estibaliz Neira Martinez	EH Bildu
- Aitor Güemes Oyarbide	EH Bildu
- Ione Olatziregi Mendiorotz	EH Bildu
- Juan Martín Arregui Sagües.....	EAJ-PNV
- Urkiri Salaberria Gracia.....	EAJ-PNV
- Nerea Zusberro Alberro.....	EAJ-PNV
- Antton Costa Casco.....	EAJ-PNV
- Iñigo Touzani Velasco.....	EAJ-PNV
- Mikel Durán Gonzalo.....	PSE-EE (PSOE)

Bertaratu ez direnak

Idazkaria

- Kontxi Urdampilleta Santamaria

Aztergaiak

EGUNEKO AZTERGAIAK	Zk / Nº	ORDEN DEL DIA
Adin mahaia eratzea	1	Constitución de la Mesa de edad
Zinegotzi berrien kargua hartzea	2	Toma de posesión de los cargos de los nuevos concejales
Korporazio berria eratzea	3	Constitución de la nueva Corporación
Alkatearen hautaketa	4	Elección de Alcalde
Alkateak bere kargua hartzea	5	Toma de posesión del Alcalde



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

Esan-eginak eta erabakiak

1. Adin mahaia eratzea

Azaldu da Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak Udaletxera bidalitako ziurtagiriak egiaztatu direla eta horren arabera, adin-mahaia honela osatzen dela:

1. Constitución de la Mesa de edad

se ha explicado que se ha realizado el cotejo de las certificaciones emitidas por la Junta Electoral de Zona y que la mesa de edad queda constituida de la siguiente manera:

Kargua / Puesto	Izen abizenak / Nombre y Apellidos
Hautetsi zaharrena Candidato de mayor edad	Antton Costa Casco
Hautetsi gazteena Candidato de menor edad	Nerea Zuzberro Alberro
idazkaria	Kontxi Urdampilleta Santamaria (Udal idazkaria)

2. Zinegotzi berrien kargua hartzea

Mahaiak adierazi du, Eskualdeko Hauteskundeko Batzordeak igorritako aldarrikatze agiriak edo zinegotzien agiriak jaso dituela, eta dokumentazioa, jatorrizkoarekin erkaturik, bat datozela.

Bestetik, zinegotzi hautetsi guztiek legeak eskatutako aitorenpenak egin (ondasuna, jarduera eta bateraezinasuna) eta zergak informazioa aurkeztu dituzte

Beraz, Udal honetako korporazio berriko zinegotzi hautetsiei deitu zaie kargua hartzeko osoko bilkuran eserlekua har dezaten.

2. Toma de posesión de los cargos de los nuevos concejales

La mesa informa de que se han recibido los certificados y nombramientos de concejales por parte de la Junta Electoral de Zona y que tras su cotejo con los originales coinciden.

Por otro lado, todos los concejales electos han realizado las declaraciones de bienes, actividades e incompatibilidades y han presentado la información fiscal exigida.

Por lo tanto, se procede a continuación al llamamiento a los concejales que forman la nueva Corporación Municipal para que pasen a ocupar asiento en el salón de plenos.

Euskal Herria Bildu (EH Bildu)

Xabier Urdangarin Iasa -
Aintzane Barandiaran Ezponda
Andoni Gartzia Arruabarrena
Rosalia Fernandez Rodriguez
Estibaliz Neira martinez
Aitor Güemes Oyarbide
Ione Olatziregi Mendiorotz



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

Euzko Alderdi Jeltzailea – Partido nacionalista vasco (EAJ-PNV)

Juan Martín Arregui Sagües
Urkiri Salaberria Gracia
Nerea Zusberro Alberro
Antton Costa Casco
Iñigo Touzani Velasco

Partido socialista de euskadi- Euskadiko ezkerria (PSOE) (PSE-EE (PSOE))

Mikel Duran Gonzalo

Jarraian uda-idazkariak zinegotziei zina edo juramentua hartu die, horretarako galdera hau eginaz:

“Zin egiten duzue Zinegotzien egin beharrak zintzo eta Legea errespetatuz beteko dituzuela?”

Zinegotzi guztiek zin egin dute, eta karguaren jabetza hartu dute.

A continuación, la Secretaria ha procedido a tomarles juramento, formulando la siguiente pregunta.

“Juráis o prometéis desempeñar fielmente las obligaciones del cargo de concejal respetando la Ley?”

Todos los concejales juran y prometen, y toman posesión del cargo.

3. Korporazio berria eratzea

Kontuan harturik batzarrean gehiengo osoa bermatu dela, adineko mahaiak Udalbatza eratutzat jotzen duela jakinarazten du idazkariak.

3. Constitución de la nueva Corporación

Teniendo en cuenta que en la sesión se ha garantizado la mayoría absoluta la Secretaria informa que la mesa de edad da por constituida la Corporación.

4. Alkatearen hautaketa

Idazkariak gogoratu du, 5/85 Legeak agintzen duenaren arabera, alkatea aukeratzeko honako hauek hartu behar direla kontuan:

- Zinegotzi guztien gehiengo osoa lortzen duena izango dela alkate, hau da, gutxienez 7 boto lortzen dituenak.

- Inork ez balu gehiengo osoa lortuko, udal hauteskundeetan gehien bozkatutako zerrendako buru den zinegotzia, izango dela alkate.

- Alkatea aukeratzeko zinegotzi diren zerrenda buruak direla hautagai. Beraz, kasu honetan

4. Elección de Alcalde

La Secretaria ha recordado que de acuerdo con lo dispuesto en la Ley 5/85 para la elección del alcalde hay que tener en cuenta las siguientes cuestiones:

- Será Alcalde el que obtenga la mayoría absoluta de los votos, es decir, por lo menos 7 votos.

- En caso de que nadie obtenga mayoría absoluta se nombrará Alcalde al cabeza de la lista mas votado en las elecciones.

- Son candidatos los concejales cabeza de lista de cada una de las candidaturas. Por ello, en



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

kontuan harturik Zorione Etxezarragak zinegotzi karguari uko egin diola Hauteskunde Batzarraren aurrean, alkategaiak honako hauek izan daitezke:

1. Xabier Urdangarin Lasa
2. Juan Martín Arregui Sagües.
3. Mikel Duran Gonzalo

este caso, teniendo en cuenta que Zorione Etxezarraga ha renunciado, ante la Junta Electoral, a su cargo de concejal, son candidatos a alcalde los siguientes:

Jarraian udal idazkariak hitz eman die hautagaien, eta Mikel Duran zinegotziak adierazi du ez duela bere burua aurkeztuko alkategai izateko.

A continuación, la secretaria ha cedido la palabra a los candidatos, y el concejal Mikel Duran ha señalado que no se va a presentar como candidato.

Beraz, legeak aukera ematen duenez alkategai izateari uko egitea zinegotzi karguari uko egin gabe, idazkariak azaldu du bi alkategai daudela:

En consecuencia, y dado que la ley permite renunciar a ser candidato a alcalde sin renunciar al cargo de concejal, la secretaria señala que hay dos candidatos:

- Xabier Urdangarin Lasa
- Juan Martín Arregui Sagües.

Jarraian bozka egin da, zinegotzi bakoitzak bozka-txartela hautestontzian sartuz:

Posteriormente se procede a la votación, introduciendo cada concejal la papeleta de voto en la urna.

Bozkaren emaitza, honakoa izan da:

El resultado de la votación es el siguiente:

BOTOAK	GUZTIRA
Xabier Urdangarin Lasa	7
Juan Martín Arregui Sagües	5
Txuriak / boto blanco	1
Guztira / Total	13

Kontuan harturik XABIER URDANGARIN LASAk 7 boto lortu dituela, alegia, gehiengo osoa lortu duela, mahaiak aldarrikatzen du Xabier Urdangarin Lasa, Astigarragako Alkatea hautatua izan dela.

Dado que XABIER URDANGARIN LASA ha obtenido 7 VOTOS, es decir, ha obtenido mayoría absoluta, la mesa informa que ha sido elegido alcalde de Astigarraga Xabier Urdangarin Lasa.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

5. Alkateak bere kargua hartzea

Alkate ohiak alkate berriari alkatetzaren ikurra eramane dio, eta zorionak eman dizkio.

Jarraian, legeak xedatutakoa jarraiki zbearrezkoa denez alkateak bere kargua zin egitea, idazkariak zina hartzen dio galdera hau eginaz:

“XABIER URDANGARIN LASA zin egiten duzu Alkatearen karguaren eginbeharrak zintzo beteko dituzuela eta Legeari men egingo diozula?”

Alkateak baiez erantzun du. Beraz, XABIER URDANGARIN LASA karguaren jabetza hartu eta onartu du.

Alkateak hitza hartu eta bertaratuei eskaerak eman ondoren, adierazi du bere hitzaldiarekin hasi aurretik oposizioko alderdiei eman nahi diela hitza.

Mikel Duran zinegotziak hartu du hitza, eta hitzez hitz honako hau adierazi:

“Zorionak alkateari, Xabier, Zorionak EH Bildu taldeari.

Espero y deseo que tengais muchos aciertos porque eso redundará en el municipio. A lo largo de estos cuatros años seguro que tendremos nuestras diferencias, nuestros desencuentros, pero tambien se que va a ser posible entre los tres grupos de llegar a acuerdos. Lo espero y lo deseo. “

Jarraian, Nerea zusberro zinegotziak hartu du hitza, eta honako hau adierazi:

“Hasteko, gure udal-taldearen izenean zorionak eman nahi dizkiogu alkate izendatu berriari. Legealdi oparoa edukitzeko aukera guztiak utzi dizkizu EAJ-PNVk egin duen kudeaketak. Kutxa diruz beteta, udala zorrik gabe eta herria martxan.

Zuk ordezkatzzen duzun taldeak 2011n alkatetza lortu zuenenan, alkate berriak, zuen taldeko zinegotzi izaten jarraitzen duenak, hitz politikak esan zituen bai kanpañan zehar eta bai alkate kargu hartu zuenenan: kontsulta, konpromisoa eta elkarlana. Gehiengo absolutuak eman zion aginte-boterea gaizki erabili eta hitz emandakoak jan zituen eta alkatetza galdu zenuten.

Hasiko dugun legealdi berriari ere gehiengo absolutuarekin ekingo diozue. Eta oraingoan ere kanpañan eta

5. Toma posesión del Alcalde

La alcalde saliente le entrega el bastón de mando al nuevo alcalde y le felicita.

A continuación, dado que en cumplimiento de lo dispuesto en la Ley es preceptivo realizar el juramento, la Secretaria le formula al Alcalde la siguiente pregunta:

“XABIER URDANGARIN LASA Juras o prometes desempeñar fielmente las obligaciones del cargo de Alcalde respetando fielmente la Ley?”

El alcalde responde afirmativamente, por lo que XABIER URDANGARIN LASA acepta y toma posesión del cargo.

El alcalde toma la palabra, y tras dar las gracias a los asistentes, señala que antes de empezar con su discurso, quiere ceder la palabra a los portavoces de la oposición.

Toma la palabra el concejal Mikel Duran, que señala literalmente lo siguiente:

A continuación ha tomado la palabra la concejal Nerea que ha señalado:



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

bai gaur hitz polit asko... baina ikusteko dago oraingoan hitz emandakoa beteko duzuen. Guk horretan lasai gabiltza: hitza bete dugu azken lau urte hauetan.

Jakin ezazue EAJ-PNV udal taldeko kideok oposiziotik ere Astigarragaren eta herritar guztion alde jarraituko dugula lan eta lan, orain arte egin dugun bezala.

Berriz ere, zorionak alkate jauna. Espero dugu zuek ere gure herriaren alde egitea gaurtik aurrera izango duzuen aukera berri honetan.”

Bukatzeko, alkateak hartu du hitza, eta honako hau adierazi:

Para terminar, ha tomado la palabra el alcalde, y señalado que:

“Herrikideak, astigartarrak, zinegotzi jaun eta andreak, idazkari andrea, egun on,

Urratsez urrats iritsi gara gaurko hitzordura. Herri programa landu, zerrendak osatu, jende askorekin hitz egin, kanpaina, hauteskunde eguna eta gaua... Tentsio eta lan handiko hilabeteak izan dira zerrendakideontzat, bereziki lehen aldiz gisa honetako bideari ekin diogunontzat. Eskerrak eman nahi dizkizuet EH Bildun hainbeste hilabetez hainbeste lan egin duzuenoi. Jende askok lan asko egin du eta ondo. Eskerrik asko denoi.

Izenak esatea arriskutsua da, baina uste dut okerragoa dela izen batzuk esan gabe geratu izanaren damua. Zuen izenak bereziki aipatu nahi ditut gaur, azken lau urteotan eta joan den irailaz geroztik lan bikaina egin duzuelako: Iñaki, Eneritz, Iker, Tere, Ainara, Ander, Andoni eta Ione. Eskerrik asko.

Gaur, esango nuke erantzukizun eta ardura berezia sentitzen dugula EH Bilduko zazpi zinegotziok. Eta ausartuko naiz esaten, orobat, EAJko eta PSEko korporaziokideek ere ardura sentituko duzuela, astigartarrek gu hamahiruon esku utzi duten eginkizuna txukun eta egoki bete nahi dugulako.

Badakigu, jakin, nahiz eta maiatzaren 26ko hauteskundeak irabazi eta gehiengo osoa lortu, Astigarragan 6.800 herrikide garelara eta, beraz, gure egitekoa da 6.800 astigartarrona den herria ahalik eta ondoen kudeatzea.

Kanpainan behin eta berriz esan nuen behar den guztia daukagula: programa egoki bat, lantalde ona, lanerako ilusioa eta gaitasuna eta jende askoren laguntza eta babesa. Orain da unea lanean hasteko eta esandakoak egiteko. Orain abagunea ezinbestekoak ditugun azpiegitura eta zerbitzuak lortzeko eta hobetzeko.

Esandakoa egin, egindakoa esan eta izan, horra hiru aditzekin laburbilduta gure asmo-nahiak: esan, egin eta izan. Baina jardunak oinarriak behar ditu, printzipioak, balioak.

EH Bilduren oinarria herritar guztien ongizatea bermatzea da, eta horretarako proiektu aurrerakoi, independentista, feminista eta euskaltzalea daukagu. Pertsonak jarri behar ditugu erakunde guztien politika publikoen erdigunean. Bazterrean daudenen aldeko jarduna da gurea, murrizketa sozialik ez egoteko eta duintasunez bizitzeko eskubidea zaindu eta bermatzeko.

Alkategai nintzela jakin zuenean eta hauteskundeen biharamunean amak “zintzo” hitza erabili zuen “zabiltzan lekuan zabiltzala, zintzo jokatu”. Ez izan zalantzarik, zintzotasunez egingo dugu lan. Gardentasunez egingo dugu lan, denon dirua zertara bideratzen den eta nola kudeatzen den jakiteko eskubidea duzuelako, dugulako. Konpromisoa hartzen dugu udaleko politika ekonomikoa txukuna, gardena eta ustelkeriarik gabekoa izateko.

Gure bulegoetako ateak zabal-zabalik daude eta parez pare irekita egongo dira astigartar guztiontzat, taldeentzat, elkarreentzat... Eta, jakina, baita oposizioko alderdientzat ere, herrikide askoren ordezkari zaretelako eta, gauza batzuetan bat etorri ez arren, gu bezala Astigarragaren hobe beharrez ari zaretelako.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

Herritar, talde, elkarte... zuen guztion ekarpen, iritzi eta asmoak entzun nahi ditugu, gureak zuekin partekatu. Baina, ez da nahikoa udaletxeko edo bulegoko atea zabalik edukitzea, ez da nahikoa eserita zain egotea, zuengana joango gara galdezka, gure asmoen berri ematera, zuekin hitz egin, partekatu eta adostera.

Herritar guztiak kontuan hartuta lan egin nahi dugu eta, nola ez, arrazoi politikoengatik urrun edo espetxean daudenak ere aintzat hartuta. Guk Astigarragan eta Euskal Herri osoan, demokrazian sakontzeko eta guztion eskubide zibil eta politikoak bermatzeko lan egingo dugu.

Etxekoei esker oneko hitzak esan nahi dizkizuet, Ekhi, Aner, Ganix eta Kizkitza, eskerrik asko. Eskerrik asko, zinez, baita ere, amaginarrebari, koinatari, ilobei eta plazako familiari. Eskerrik asko anai arreba eta gurasoei. Eskerrik asko lagunei. Eta nik bezala, ziur naiz, korporaziokideek ere izango duzue zeinekin gogoratu eta zeini eskerrak eman. Eskerrik asko esatearekin batera, alabaina, pazientzia ere eskatu behar dizuet, gaur ez delako ezer amaitu, hasi baizik.

Udaletxeko langileak aipatu gabe ez dut amaitu nahi. Administrazio publikoko langilea naiz ni ere eta badakit zer izaten den agintaldi berriari ekitea. Ziurgabetasuna, aldaketa, egokitzeko unea... Konfiantza osoa dugu zuengan, badakigu talde egokia eta profesionala zaretela eta ez dugu zalantza izpirik ere, badakigu norabide berean eta giro onean lan egingo dugula. Pazientzia eskatuko dizuegu zuei ere, hainbat eta hainbat gauza ikasi behar ditugulako eta guk ere egokitzeko epe bat behar dugulako.

Noan amaitzera. Eratu berri dugun udalbatza honen buru izateko hautatu nauzue gaur. Ohore handia da bizi zaren herriko alkate izatea, ezpairik gabe, ohorea eta ardura. Arduraz eta kezka apur batez hartu dut aginte makila, baina beldurrik gabe, benetan uste baitut ahalegin zintzoak emaitza onak ekarri ohi dituela eta gurea, esan gabe doa, ahalegin bete bezain zintzoa izango da.

Amaitzeko, tamalez alkate kantuzalea tokatu zaizue.

Alkategai izendatu berritan bertsoren bat kantatu nuen eta, berotasun hartan esan nuen alkate izanez gero kantatuko nituela beste batzuk. Esaerak dio, zor zaharra zor txarra eta, horrenbestean, hobe izango da zorra gaur kitatzea.

HAMAHIRU ZINEGOTZI
ESAN DEGUN GISAN,
ETA BAT JARRI BIHAR
DANEZ ALKATETZAN
NI HAUTATU NAZUE,
BATEN BAT BIHARTZAN,
ESANDAKUA INDA
INDAKUA ESAN,
BERTSON BAT KANTATZEKO-
TAN GERATU NITZAN

GOGOZ EGINGO DEGU
EGIN BIHAR DANA
HITZ EGIN, PARTEKATU
TA ADOSTU DANA,
BELDURRIK EZ DIOGU
ETA BETOR LANA,
TA EZ DEZAGUN AZTU
AMAREN ESANA,
ZINTZO JOKATUKO DEU
ZAUDE LASAI AMA.

IZENDATU NAZUE
HERRIKO ALKATE,
BAINA BA OTE DAUKAT
ITXURARIK BATE,
HAS GATTEZEN LANIAN
LANIAN JO TA KE
ETA JARRAI DEZAGUN,
NAHIZ ARNASA BETE,
GALDU DUENAK ERE
IRABAZI ARTE.

BADAUKAGU BURUA
BADEGU INDARRA,
TA BADAGO HERRIA
ASTINDU BIHARRA,
**GAUR LANDU ETA EREIN
BEHAR DA BIHARRA,
PERTSONA ASKO GERA
HERRIA BAKARRA,
“AUPA ASTIARTARROK,
AUPA ASTIARRA”.**



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

9:25ean alkateak bilkura amaitutzat eman du, eta nik, Idazkariak eztabaidatua eta erabakitakoa jasota gera dadin honako agiria egin dut

A las 9:25 horas el Alcalde da por finalizado el acto, y yo la Secretaria doy fe de lo debatido y acordado.

Astigarragan, 2019ko ekainaren 15ean

Kontxi Urdampilleta Santamaria
Ordezko idazkaria